

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure aplikazioak ondo funtziona dezan, garrantzitsua da beste pertsona eta erakunde batzuekin elkarlanean aritzea. Horregatik, funtsezko elkarteak behar ditugu.



Alde batetik, eskolek, institutuek eta akademiek gure aplikazioa gomendatu dezakete ikasleei. Adibidez, ikasgai batean arazoak dituzten ikasleei laguntza aurkitzeko, edo ikasgaiak oso ondo menperatzen dituzten ikasleei beste batzuei klaseak emateko aukera emateko. Horrela, ikasleek elkarri laguntzen diote eta denek irabazten dute.

Bestetik, irakasleek eta hezitzaileek lagundu dezakete aplikazioaren kalitatea hobetzen. Haiek edukia zuzena eta egokia dela ziurtatzen lagundu dezakete, eta horrek ikasleen konfiantza handitzen du. Horrela, erabiltzaileek badakite aplikazioan jasotzen duten laguntza fidagarria dela.

Azkenik, gurasoen elkarteek eta familiek konfiantza ematen dute aplikazioa segurua dela frogatuz. Haien laguntzarekin, aplikazioa gehiago zabaltzeko eta familiek jakin dezakete tresna erabilgarria dela ikasleen ikaskuntza hobetzeko.

Laburbilduz, elkarte hauei esker gure aplikazioa ez da bakarrik tresna bat izango, baizik eta ikasleentzako laguntza-sare fidagarri eta eraginkor bat.